

## **Eskolako mantenimenduarekin Udal Gobernuak erakutsitako utzikeria salatu du EH Bildu Orozkok**

---

Orozkoko eskolak duela urteak egin gabe dauden hainbat konponketa behar ditu. Eskolako mantenimendu on baten ezaren ondorioz, besteak beste, hainbat baldosa altxatuta eta apurtuta daude, patioko horma bat konpondu gabe dago, jantokiko zapaian zulo bat dago eta euria egiten duenean ura, hezetasuna eta zikinkeria sartzen da eta haur hezkuntzako eraikinean pertsiana bat apurtuta dago. Konponketa hauetako batzuk bi urtetako atzerapena dute.

Eskolako zuzendaritzak, 2022ko urtarrilean konponketa behar guzti hauen berri eman zion Udalari, baina, oraindik, gaur gaurkoz, ez da ezer egin. Hori dela eta, eskolako zuzendaritzak urriaren 4an beste eskaera bat egin behar izan du eta gurasoek eskaera luzatu diote Udal Gobernuari, behar diren konponketak lehenbailehen egin ditzan. Gainera, irailean irakasle bat altxatuta zegoen baldosa batekin erori eta bajan dago. Eskolaren egoerak ikasleen, irakasleen, langileen eta hezkuntza komunitate osoaren segurtasunean eragina dauka eta Udala da eskolaren mantenimenduaren ardura duena, beraz, Udal Gobernuak da eskola modu egokian dagoela bermatu beharko lukeena.

Urriko plenoan gai honen inguruan galdetu zion EH Bildu Orozkok Adieko Udal Gobernu Taldeari eta alkateak ez du argipenik eman eskolako konponketak bi urte beranduago egin gabe egotearen zergatia azaltzeko. Hezkuntzako zinegotziak kontratuen esleipena jarri zuen aitzaki moduan, baina eskolak urgentziaz behar ditu aipatutako eta behin baino gehiagotan eskatutako konponketak. Gainera, emergentziazko kontratazioak egin daitezke eta 2021ean Udal Gobernuak lizitatu gabeko 260 kontratazio egin zituen, eskola konpontzea baino larritasun askoz gutxikoak.

EH Bilduk, gogor salatu du Adieko Udal Gobernuak eskolaren mantenimenduarekin erakusten ari duen utzikeria eta hezkuntza batzordean egoeraren jarraipena egiteko konpromisoa hartu du. Gainera, egoera hau ez da baliabide ekonomikoaren eta inbertsio faltaren eraginez sortu, eskolaren egoera Adieren kudeaketaren ondorio zuzena dela uste du EH Bilduk.